

Istorio motzen erabilera komunikatiboa

Stephen Arnold McNulty/ Alison Sykes McNulty

Artikulu honen helburua irakasleei ikasgelan narrazio motzak hustiratzeko hainbat iradokizun praktiko ematea da. Hiru zatitan banatua dago. Lehenengoak ikasleek narrazio motzak irakurtzean aurki ditzaketen zailtasunak izango ditu aztergai eta klasean literaturaz baliatzeko modu tradizionala eta ikuspegi komunikatiboa erkatzen ditu. Bigarrenak ikuspegi komunikatiboaz baliatzeko istoriorik egokienak zeintzuk diren iradokitzen du. Eta azkenekoak horrelako narrazio motzak sartu, hustiratu eta bukatzeko egin daitekeen hainbat ihardun eta ariketa-modu aztertzen du.

Bi dira irakurtzera bultzatzen gaituzten arrazoiak: informazioa bilatzea eta plazerra. Berezko hiztunentzat literatura irakurtzea jeneralean plazer edo atseginbide bezala hartzen da. Ez zaio, ordea, hori derrigorrez gertatuko bigarren hizkuntza bat ikasten ari denari. Eta hainbat arrazoiengatik gerta daiteke hori. Agian testu literario luzeak irakurtzeko irakurmen «onik» ez duelako izango da eta testuak hitzez hitz ulertu nahi dituelako; eta horrela hiztegiari begira denbora gehiago pasako du funtsezkoa ulertzearekin konformatuko balitz baino. Edo baliteke bere jaiotzikuntzan ere asko ez irakurtzea. Arrazoiak bat izan edo bestea izan, kontua da kexu dela istorioa luzeegia, aspergarria eta zailegia delako.

Erabilera tradizionala eta erabilera komunikatiboa

Zer ulertzen da testu literariokin lan tradizionala egitea esaten denean? Lehendabizi, ikasleek testua osorik irakurtzen dute; gero istorioko gertaerei eta protagonisten emozio eta jokaerei buruzko ulermen-galderei erantzuten diete. Gero estiloa eta ideiak eztabaidatzen dituzte eta ondoren idatz-ariketaren bat egingo dute. Ikuspegi akademikoa da, beraz, nagusi.

Alderantziz, erabilera komunikatiboan, ikaslearen hizkuntz abildadeak garatu nahi dira «literatur kritikolariarenak» baino areago. Ikasleen arteko «benetako» komunikazioa sustatzen du, zenbaitetan ahozko komunikazioaren mesedetan irakurketa urrituz, narrazioak eginez, esaterako; horrela emango bait zaie ikasleei beren eguneroko bizitzan behar duten abildade bat lantzeko aukera. Irakurketa ikasleentzat interesgarria, suspergarria eta beste era batekoa izatea nahi da batipat, buruan sartu nahi bait zaie xede-hizkuntzan irakurtzea atsegina

izan daitekeela. Hori ikusiz gero, ikasgelatik kanpo ere irakurtzeko konfidantza izan dezatela. Helburu hauek lortzearen, era askotako ekintzez baliatzen da ikuspegi komunikatiboa ikasgelan; hauetaz, besteak beste: informazio-hutsarreak, problema-konponketa, aurrikuspena, ahozko ulermena, idazketa aske eta gidatua, etab.

Nola aukeratu narrazio motzak

Ez dira era komunikatiboan erabiltzeko modukoak narrazio motz guztiak. Narrazio motz hoberenaren ildoan indar handikoa izango da eta bukaera zehatzekoa. Polizi istorioak, naturaz gaineko narrazioak, uste gabeko bukaera dutenak dira azkenean materialik egokiena. Nolanahi ere, istorio bat aukeratzekoan kontuan haxe eduki behar da: ea narrazioaren ildoan indar handikoa den.

Kontakizun motzak erabiltzeko ideiak

Sail honetan narrazio motzez baliatzeko hainbat ariketa eta ihardun-modu aztertzen dira, behar bezala ordenatuta. Hiru dira horrelako istorioak era komunikatiboan egoki erabiltzeko etapak:

- 1 Istorioa sartzeko modua.
- 2 Istorioa garatu edo hustiratzeko erak.
- 3 Istorioaren amaiera bizitu edo istorioarekin lana amaitzeko moduak.

Istorioa sartzeko modua **1 Espekulazioa eta aurrikuspena**

Lan honen helburua da ikasleak saia daitezela liburua ikusi aurretik ere istorioaren edukiari buruzko espekulazioan eta aurrikuspenean. Hau istorioaren tituluaren bitartez edo liburutik esaldi esanguratsuren bat aukeratu eta arbelean idatziz egin daiteke. Hori zer den esan beharko zaie, begien bistakoa denez (liburuaren izena edo esaldiren bat, adibidez), eta horri buruz hitz egitera bultzatu. Ikus eztabaida sortzeko irakasleak egin ditzakeen galderen adibide bat (.1).

.1 Esaldia

«Era honetako gauza normalek ikaratu egiten naute: belarretan inguru garbia duten itzalak ikusteak, arrosa zuriek, ume ilegorriek eta Harry izenak, hain izen korrientea izanik».

Irakaslearen galderak

- Nolako istorio-motatik atera dira esaldi horiek: erromantikoa, historikoa, zientzia-fikziozkoa, poliziakoa...?
- Nor mintzatu da, emakumea ala gizasemea? Zerk eraman zaitu gizasemea/emakumea dela pentsatzera?
- Zeren beldur da? Horrelako gauzek zergatik beldurtzen dutela uste duzu?
- Nor da Harry? Zer harreman-mota du esatariarekin?, etab.

Bikoitza da era honetako ekintza baten helburua. Alde batetik, ikaslearen arreta ondoren irakurri edo entzungo duenera ekartzea eta, bestetik, aurrikuspen-abildadeak gara ditzatela, horrek irakurmena erraztuko bait die.

2 Pertsonaiaren analisia

Ekintza honetarako, irakasleak protagonista nagusien deskribapenak aukeratu beharko ditu liburuan, kontuan hartuz aukeratutako pasarteek behar hainbat xehetasun izan dezatela, baina ez daitezela orrialde bat baino luzeagoak izan. Gero taldea protagonista nagusiak diren hainbeste zatitan banatuko du (esaterako, hiru protagonista, hiru taldetxo). Talde bakoitzari pertsonaia baten deskribapena emango zaio irakurri eta dagokion informazioarekin •2¹ taula bete dezaten. Badu garrantzia ikasleei esateak, testuan behar adina informazio aurkitzen ez badute, pertsonaia nolakoa den irudikatu egin behar dutela eta horrela taula beren ideiez bete. Behin taldetxo bakoitzak egokitu zaion pertsonaiari buruzko taula bete ondoren, irakasleak berriro eratuko ditu taldetxoak, oraingoetako bakoitzean gutxienez lehengo talde desberdinetatik etorritako hiru kide izan daitezten. Une horretan ikasleek elkartrukatu egingo dute beren informazioa eta horrela, ariketa bukatutakoan, ikasle bakoitzak hiru pertsonaiei buruzko informazioa izango du, eta taula beteta. Une horretan ikasleei eskatuko zaie pentsa dezatela zein izango den beren ustez istorioaren gaia. Irakasleak zenbait arrasto eman diezaieke, adibidez:

- Zein istorio-mota da?
- Pertsonaien arteko harremanak nolakoak dira?
- Zer pentsatzen dute elkarri buruz?
- Zein tankeratakoak dira pertsonaiak?
- Zein dela uste duzu istorioaren gaia?
- Zer gertatuko da? Nola amaituko da?

Lehenengo ekintzak bezala, honek ere ikasleak espekulatu eta aurrikuspenak egitera eramango ditu. Baina, gainera, ikasleak informazio-hutsartea moduko ariketan sartuko ditu, helburua informazioa eskuratu beharra sortzea izango delarik, era honetan egoera benetakoa sortuz. Bestalde, ikasleak irakurtzen ari direna begiz ikustera bultzatuko ditu, H₁etik H₂ra alda daitekeen abildadea, irakurmenean munta handikoa dena.

Istoria hustiratzeko moduak 1 Narrazioa

Ekintza honek irakurketaren luzeroa mozten du ahozko adierazpenaren mesedetan, hots, narrazioaren onerako. Irakasleak narrazioko bi edo hiru pasarte aipatzen ditu. Gero ikasleak beste hainbeste taldetxotan banatzen dira eta taldetxo bakoitzari bere pasartea ematen dio. Ikasleek pasartea irakurtzen dute eta beren ustez narrazioa laburtzeko balioko dieten 10-15 hitzen zerrenda egiten. Une honetan ikasleak bere arreta pasarteko ideia nagusiari eskaintzera bultzatu behar dira, hitz bakoitza ulertzen aritu gabe.

Gero irakasleak taldetxoa berregiten ditu, horietako bakoitzean pasarte desberdinak irakurri dituzten ikasleak sartuz (taldetxo bakoitzean pasarteak adina ikasle beharko luke egon). Ikasle bakoitzak berak irakurri duen pasartea

	A taldetxoa 1. pertsonaia	B taldetxoa 2. pertsonaia	C taldetxoa 3. pertsonaia
Adina			
Lanbidea			
Tankera			
Altura			
Begiak			
Ilea			
Larru-azala			
Eskuak			
Ahotsa			
Ibilera Zutik egoteko era			

kontatuko die talde-lagunei, hala behar izanez gero, lehen egin den hitz-zerrendaren laguntzaz.

Ikasleak narrazio eta laburpen-abildadeetan trebatzea da ekintza honen helburua. Oraingoan ere ekintza honek lana benetako egoera komunikatiboan egiteko aukera ematen die, eta horri esker ikasleek elkarri hitza eten, argibideak eskatu, iritziak eman eta beren adostasun edo desadostasuna azal dezakete.

Irakasleak, deskribatu diren pasarteak zenbateraino ulertu diren jakiteko, pasarte guztien laburpen globala egin dezake (ez 150 hitz baino gehiago), hitz batzuk kendu eta hitzen zerrenda laburpenaren barrenean jarri eta ikasleei laburpena irakur erazi, eta zuriguneak zerrenda horretatik hartutako hitzez bete erazi.

2 Irakurri eta marraztu

Ekintza honek ere informazio-hutsartearen ezaugarriak berak ditu. Irakasleak hiru edo lau pasarte aukeratzen ditu, eskenategien edo pertsonaien deskribapena, edota hauen nahasketa istorioan funtsezkoa izan daitekeena. Gero ikastaldea taldetxotan banatzen du eta taldetxo bakoitzari bere pasarte ematen dio. Ikasleek irakurri egin beharko dute eta gero ulertu dutena marraztu. Seguru baino seguruago ikasleak kexu izango dira, artistak ez direla alegia eta, beraz, ez direla ariketa hori egiteko gauza. Alabaina, irakasleak ikusterazi behar die lanak ez direla artearen aldetik aztertuko eta edozein marrazkik balio duela, hasi palo-paloetatik eta marrazki abstrakturaino. Ekintza honen garrantzia honetan datza: ikasleek edozer egiten dutelarik ere, ez dutela hitzez egiten eta testua irakurrita ulertu dutena papereratu behar dutela.

Behin lana bukatutakoan, irakasleak taldetxo berriak egingo ditu, pasarte desberdinak irakurri dituzten ikasleek osatuak. Ikasle bakoitzak, bere marrazkiaz baliatuz, lehen irakurri duena azalduko die bere hitzez taldekideei eta gertatutakoa marrazteko moduari buruzko galderak egin diezazkizotela eskatu.

Erabili diren hiru edo lau pasarteak ikasle guztiek ulertu dituzten ala ez ziurtatzeko, irakasleak egia/faltsua erako galdekizunak presta ditzake ikasleek erantzuteko.

Ekintza honek ere ikasleei irakurmenean ikusizko ulermenak duen garrantzia ulertzen lagunduko die eta ahozko laburpenetan trebatzeko aukera emango.

Bukaera bizitzeko erak **1 Izan zaitez erdi-autore**

Honez gero ikasleak badaki istorioaren zati handi bat, eta bukaera nolakoa izango den asmatzen hasia da. Irakasleak testuaren azken orrialdeetako elkarriketa edo zati esanguratsuren bat aukeratuko du eta pertsonaiaren batek esandakoak edo testuko zatiren bat ezabatuko du. Ikasleek testua irakurri egin behar dute eta osatzen saiatu, horretarako aurrez gertatu denaz dakitenaz eta gertatuko dela uste dutenaz baliatuz.

Ariketa hau binaka edo taldeka egin daiteke eta, behin bukatuz gero, denen emaitzak erkatu jatorrizko testura jo baino lehenago.

Hizkuntz gaitasun berezia eskatzen du era honetako ariketa batek, ikasleek elkarriketa edo testu ez-osoak irakurri eta ulertu behar bait dute eta dituzten ezagutza gramatikalak azaldu falta diren zatiak kontatzerakoan. Ariketa honek aurrikuspenean trebatzeko balio du; aurrikuspena irakurmenaren elementu garrantzizko bat da.

2 Izan zaitez ia-ia autore

Storyboard izena ematen zaio ariketa honi eta irakaslearengan ardaztutako lana da. Irakasleak istorioaren azkeneko parrafoa hartzen du, onena 40 edo 60ren bat hitzekoa izango litzatekeelarik. Hori ezin bada, berak idatzi beharko du laburpen bat. Gero ikasle bakoitzari orri bana emango die marra banatu eta ondo zenbakituak dituen (e.g. 1 — 2 — 3 —). Marra bakoitzak kontakizuneko edo berak egindako laburpeneko hitz bat irudikatzen du. (Guneren bat bete daiteke, horrek ikasleei lagunduko diela uste izatera.) Ikasleei garbi azaldu behar zaie aurrean zer daukaten: istorioaren azken parrafoa, hitzak ezabatuta. Beraiei hitz horiek asmatzea dagokie. Desordenak ekiditeko, ikasleek hitza ordenan hartzea komeni da, denek aukera berak izan ditzaten arretatuz.

Ikasleak, era berean, ekintza hau burutu aurretik, testu/laburpeneko hitzen zerrenda egin behar du ordena alfabetikoan eta hitz bakoitzaren ondoan hitz horiek dauden lekua zenbakiak jarri. Era horretan, ikasleak bere ustez testuan dagoen hitza esan bezain laister, irakasleak bere zerrendan ikus dezake. Testuan ageri bada, non dagoen esan beharko die ikasleei.

Irakasleak, testua osatu ahalean, ohartuko dira ekintza hau gero eta errazagoa egiten zaiela eta beren hizkuntz abildadeaz baliatuko dira eta ez bakarrik istorioari buruzko ezagutzez, eta nola idatzia izan den ere barrundatuko dute.

Ekintza honek, gidatua izanik ere, lan handia eskatzen dio ikasleari eta beronen hizkuntz abildade asko probatuko ditu.

3 Izan autore Ariketa hau aurrekoaren aldaera bat da, baina irudimen handiagoa eskatzen du, eta testu-zati josi handiago bat ekoiztea. Irakasleak azken aldeko orri bat edo batzuk irakurtzeko eskatuko die ikasleei, baina azkeneko parrafo bat edo batzuk ezik.

Irakurri edo entzun dena ulertu den ala ez jakiteko, egia/faltsua erako galderak erabil daitezke. Orduan, bakarka edo binaka kontakizunaren azkena idatz dezatela eskatuko zaie ikasleei eta, hori egin ondoren, emaitzak eztabaidatu eta erkatu egingo dira eta, azkenean, jatorrizko testua irakurriko.

Konklusioa Irakasle askok egin ditu aprobak hemen azaldu diren ideiekin eta batzuek beste batzuek baino etekin hobea atera diote. Guk horien bitartez ikasaio aktiboago eta interesgarriagoak lortu ditugu eta ikasleei lau abildade nagusietan (entzumena, idazmena, ulermena, irakurmena) lagundu egin diegu eta batzuetan itxuraz zaletasun gutxiko ikasleak ere gehiago irakurtzera bultzatu ditugu.

Bartzelona - L'Institut Britanic

Oharrak

- 1 Irakasleak ken ditzake item batzuk edo beste batzuk erantsi, segun eta zer komeni den.
- 2 Garrantzizkoa da adieraztea lan hauek hasieran prestakuntza handia eskatzen dutela. Baina, behin

materiaia prestatuz gero, behin eta berriz erabil daiteke. Zenbat eta gehiagotan erabili, orduan eta handiagoa arrakasta, batez ere irakaslea hartara jarriago dagoelako eta ikasle-mota desberdinei egoki diezaiekeelako.